

A History of Philosophy in America. 1700-2000

BRUCE KUKLICK

Oxford: Oxford University Press, 2001, xiii + 326 or.

Filosofoa ez den historialari batek egindako liburua da hau. Pennsylvaniaiko Unibertsitateko Historia saileko irakaslea da Kuklick, Ameriketako Estatu Batuen historian aditua. Sarreran esaten duenez, era oso zabal batean hartzen du filosofia eta honek liburuaren azken zatian desabantaila asko sortzen ditu. Aukera horretan, seguru asko, ideien historian lan egitera ohitua dagoen irakaslea nabarmentzen da. Ideia filosofikoek —zernahi direla ere— azken hiru mendeetan Estatu Batuetan izan duten eboluzioa aztertu nahi izan du liburuan, bai lehenbizi irakaskuntza zentroetatik kanpo, bai gero unibertsitateen sailen barruan, filosofo profesionalen garaia heldu zenean. Erlijioaren gizarte eragina oso handia izan da —eta da— Estatu Batuetan, batez ere Ekialdean. Eragin hori filosofian ere agerian egon da eta gaur, azkarregi besterik uste bada ere, ageri samar dago oraindik. Protestantismoaren indarra medio, erlijioa bizitzeko modu indibidualista mantendu da luzaroan han, komunitarismo esperientzia aipagarri batzuk salbu. Honek hasieran filosofiarri oinarri idealista erantsi zion metafisikan eta antierrealista epistemologian, eta, horrekin batera, gizarte filosofia edo filosofia politikoa lantzeko batere indarririk ez. Eraitza argia da: filosofiak apenas izan du eraginik gizarte mugimenduetan —aldi oso laburretan salbu— eta batere eragin propiorik ez politikagintza ofizialean. Argi esanda, politikari profesionalak, oro har, iseka nabaria ez bada, barre egiten dute filosofoek justiziaz, askatasunaz edo pobreziaz esan dutenaren eta esaten dutenaren aurrean.

Kuklicken liburu honetan egileak lehendik argitara emandako artikulua askoren eta liburu batzuen informazioa biltzen da berriro. Libururaren bukaran azaltzen den *Metodoak*, *Iturriak*, *Oharrak* izeneko atalaren hogeita hiru orri garrantzitsuetan (garrantzitsuak benetan, liburuaren kapitulu bakoitzari

dagozkion iturriak eta bibliografia hortxe ematen direlako) egileak berezi bere bi liburuok aipatzen ditu: *The Rise of American Philosophy* (1977) eta *Churchmen and Philosophers* (1985). Bestalde, gauza jakina da 1981ean best-seller filosofikoa bihurtu zela Jamesen *Pragmatismoaren* berrargitalpena, Kuklicken edizio eta hitzaurrearekin.

Liburuak hiru zati ditu eta hamalau kapitulu guztira. Hasieran hitzaurre labur bat dator, ez hainbeste ondotik datorrena idatzi behar izanaren premia justifikatzeko —eskuliburu moduan egindako lan hau gaur Estatu Batuetan bertako filosofiaren historia irakasteko ezinbestekoa baita—, egileak hartutako bi aukeren berri emateko baizik. Lehenbizikoa: filosofiaren historia hau selektiboa da eta ez entziklopedikoa; dagoena dago eta ez dagoena kanpoan utzi delako ez dago. Bigarrena: arazoaren eboluzioari heldu omen zaio, filiazio filosofikoei eta filosofigintzaren euskarri diren kulturabide eta erakundeei garrantzia emanez. Eta liburuaren lehen zatia hasten da, sarrera amaituz William Jamesek Josiah Royceri behin esan zioenarekin: *Gu guztiok isolatuak gaude... Liburuak ditugu geure lagun, gizon-emakumeak ditugunak baino areago.*

Lehen zatiaren izenburuak —*Pentsamendu espekulatiboa Ameriketan, 1720-1868*— argi adierazten du bost kapituluetan azaldu nahi dena: Estatu Batuetako filosofiaren sorrera teologia protestantearen magalean. Hiru eratako eragina aztertzen du Kuklickek: New Englandeko elizetako ministro protestante kalbinistak (Jonathan Edwards buru eta Bushnell eta Emerson ondotik), AEBetako ipar-ekialdeko, erdi-mendebaldeko eta hegoaldeko hermeretzigarren mendeko eliza ministrogaitegietako teologo-filosofoak (*Divinity School* sortu berrietako irakasle berehala bihurtu zirenak) eta hermeretzigarren mendean unibertsitate izena hartu aurretik *College* izenekoetan filosofia irakasten hasi zirenak, gehienbat teologiaren sostengu teorikorako. Ehun eta berrogeita hamar urte horietan filosofia espekulatiboaren garapena oso korapilotsua izan zen eta baliabide gutxiarekin eginga, Europan besterik gertatzen zen garai berean.

Liburuaren lehen kapitulua Jonathan Edwards (1703-1758) teologo kalbinistari buruzkoa da. Jainkoaren grazia eta bekatariaren salbazioa daude jokoan eta *Yale College* izenekoan ikasi eta denboraldi oso labur batez irakatsi ondoren, eliza ministro egin zen Northamptonen, Bostondik hurbil. Garai horretakoa da kalbinista berrien *Iratzartze Handia* eta horren buru jarri zen Edwards. Mugimendu horren gehiegikeriak barrutik kritikatu zituen eta 1746an *Religious Affections* liburu mardula argitaratu zuen. Barruko eztabaiden eraginez, ez zuen han segitzerik izan eta amerikar sorterrikoen Stockbridgeko misioetako kongregazioen ministro izatera pasatu zen. Lan teologiko eta filosofikorik zorrotzena orduantxe egin zuen, besteak beste *Freedom of the Will* (1754) argitara emanez. Hil baino hilabete batzuk lehenagotik *College of New Jersey*, gaur egungo Princeton Unibertsitatearen iturburu izan zena-

ren presidente izendatu zuten. Yalen ikasle zela Ipar Ameriketako kolonietako liburutegirik onenean ikasteko aukera izan zuen, Dummer bilduma hantxe zelako. Orduan irakurri zituen Lockeren *Saiakera* eta Newtonen *Principia*. Geroztik, platonismo kristaua, empirismo lockearra, okasionalismoa eta honen ondoriozko gogo fenomenalismoa, fisika newtondarra eta determinismo teologikoa era konsistentean lotu ezinean, arazo filosofiko asko izan zituen, batez ere *creatio continua*, Jainkoaren aitzinezagutza eta arrazoi nahikoaren printzipioa uztartzen saiatu ondoren filosofia moralaren arlora pasatu zenean. Kuklick ezaguna da Edwardsi buruzko aditu moduan eta liburu osoko kapitulurik osatuenetakoa da lehenbiziko hau.

Bigarren kapitulua oso laburra da. «Filosofia eta Politika» du izenburua. Hemetzortzigarren mendearen bigarren zatian Edwardesen eragina kongregazio eta presbiterio elizetan sakona izan zen, baina ez zuen eragin politikorik izan ez iraultza garaian ez konstituzio garaian. Eragina Europako Ilustrazioak izan zuen Paine, Jefferson, Adams eta beste gutxi batzuen bidez, batez ere Independentzia Deklarazioaren ondoren. Hirugarren kapituluak berriro eztabaida teologikoei (1750-1858) heltzen die eta halaxe du izenburua. Edwardsen ikasle izandako Bellamyk eta Hopkinsek Yalen *New Divinity* izeneko mugimendua zabaltzen dute, Bostonen nahiz Cambridgen kalbinisten buruak unitarismora pasatu zirela kontuan hartuta. Nathanael Emmons (1745-1840) izan zen eskola berri honetako pentsalaririk ezagunena, kalbinismo berria konsistentea bihurtzen saiatu zena, *Andover Theological Seminary* horretarako sortuz eta, bide batez, Harvardeko unitaristak teologikoki erasotzeko. Harvardeko John Kirkland presidentearen erantzuna oso efektiboa izan zen: teologia fakultate indartsua eratu zuen, teologia erabat profesionalizatuz eta Biblian adituak formatuz. Bide profesional beretik Princetongo ministrogaitegi teologikoa presbiterianismoa indartzen saiatu zen eta erlijioaren filosofiak indarririk handiena Yaleko *Divinity Schoolen* hartu zuen Nathaniel Taylor (1786-1858) kongregazio elizaren teologoaren irakaskuntzaren bidez, Edwardsen teologia eta filosofia era kritikoa berraztertuz.

Ancilla theologiae izan zen, bada, filosofia Ipar Ameriketara hemezortzigarren mendean eta hemeretzigarren mendearen lehen zatian. Baina azken mende horren hasieran filosofia moraleko lehen liburuak zirkulatzen hasi ziren eta sen onari buruzko filosofia eskoziar anti-eszeptikoa pixkanaka zabaltzen hasi zen, Harvardeko lehen filosofo profesionaleri esker errealismoa hedatuz, bertan eta Princetonen. Eszeptizismoaren aurkako ahaleaginean Kant «deskubritzen» dute Harvarden eta ordutik gaurdaino huraxe da hango filosofo gurtua. Liburuaren laugarren kapituluan horren guztiaren berri ondo ematen du Kuklickek, William Hamilton (1788-1856) Edinburgoko Unibertsitateko logika eta metafisikako katedradunaren eragina ere zuzen azpimarratuz. Filosofiaren autonomia garaian hasiera da hau eta horretan zerikusi handia izan zuten unibertsitateetako presidentzietara iritsi ziren filosofoak.

Hurrengo kapituluak ez du aparteko garrantzirik. Han eta hemen, Vermon-ten, Yorken, Andoverren, St Louisen eta beste hainbat lekutan filosofia alemana (Kant eta Hegel) amateur batzuen bidez nola sartzen den azaltzen du Kuklickek.

Liburuaren bigarren zatia Pragmatismoari buruzkoa da, 1859tik 1934era bitartekoa. Bost kapitulu ditu zati honek eta, zalantzarik gabe, liburuaren zatirik onena da. Pragmatismoak filosofia bere lekuan jartzen du AEBetan. Filosofia ezagutzaren teorian zentratzen da eta, hortik, Lockek nahi zuen eran, ekintzaren filosofiara, hizkuntzaren filosofiara, zientziaren filosofiara eta filosofia moralera pasatzen da. Kuklickek ondo bereizten ditu Jamesen pragmatismoa —Peirceren pragmatizismoa ez hainbeste— eta Deweyren instrumentalismoa. Zati honetako lehen kapitulua, seigarrena liburuan, AEBetako Batasunaren eta Konfederazioaren arteko gerra zibilaren (1861-1865) ondoko urteetako pentsamendu mailako testuingurua aurkezteko idatzia da. Bost elementu aipatzen dira: John Stuart Millen enpirismo berriaren eta utilitarismoaren sarrera, eboluzioari buruzko Darwinen teoriaren eragin handia, unibertsitate berrien sorrera eta zaharren indartzea, exegesi biblikoa «kritika nagusiak» eskatzen zuenaren arabera egiten hastea eta, azkenik, industrializazioak sortarazi zituen klase gatazkak gizarte arazo bihurtzea. Zazpigarren kapituluak idealismoaren nagusitasuna aztertzen du 1870etik 1900rako tartean. Idealismoa era askotako izan zen, baina beti erroak Hegelengan eta, batez ere, Kantengan jarriz. Garai horretan bi filosofo aztertzen dira bereziki: Josiah Royce (1855-1916) eta John Dewey (1859-1952) (azken honen lehenaldi filosofikoan). Royceke, Kant astiro aztertuz, idealismo absolutuaren tesiak landu eta aurkeztu aurretik, logikan egin zituen bere lehen ekarpenak eta C.I. Lewis (logika modal modernoaren sortzaileak) zioenez, dialektiko ona izateaz gain, logikari ona izatera ere iritsiko zen, arlo filosofikoz aldatu ez balu. Ezagutzaren teorian, etengabeko konfrontazioan jardun zuen Jamesekin eta bere filosofia alderdi praktikoetara, bereziki moralera eta erlijiora, zabaldu zuen. Dewey gazteak Hegelen idealismoan eman zituen lehen urratsak eta psikologiara pasatzeak fisiologia eta gizarte zientziak lotzera bultzatu zuen, garai hartako britainiar hegelzaleak ez bezala. Hala ere, neo-hegeldarizat zeukan bere burua, zientzia (psikologia) eta erlijioa (metafisika absolutista) bateragarri kontsideratuz eta bateratzen saiatuz. Kuklickek ondo azaltzen digu hau guztia, baina zoritxarrez hamargarren kapitulura arte ez zaigu berriro Dewey azalduko, bere posizio instrumentalista landuarekin.

Zortzigarren kapitulua Cambridgeko pragmatismoaz da, 1867tik 1923ra bitartekoa. Hasteko Harvardeko Klub Metafisikoaren muina osatzen zutenen izenak agertzen dira: William James, Oliver Wendell Holmes, Chauncey Wright, Charles Peirce, Nicholas St John Green eta Joseph Bangs Warner. James hurrengo kapitulurako uzten da, Green, Holmes eta Wright lerro gutxitan aurkeztzen dira eta kapitulu ia osoa Peirceri eskaintzen zaio. Hala ere, ez da nahikoa. Peirceren bizitza (1839-1914) gogorraz datu nagusiak labur eta

zehatz ematen badira ere, haren lan filosofikoa labur eta zehatz ematea ez da batere erraza, asko idatzi zuela jakinda eta bizi izan zen bitartean *Ikerketa Fotometrikoak* (1878) izeneko liburu bakarra eman zuela argitara, hain zuzen bere itsasertzeko zaindari lanbidearekin zerikusirik zuena. Ez du asmatu Kuklickek Peircerekin, ezagutzaren teoriarekin bakarrik lotu duelako, logikan eta semiotikan nahiz zientziaren metodologian edo matematikaren filosofian egindakoari garrantzi filosofikorik eman gabe.

Bederatzigarren kapituluan, merezimendu guztiz, William James (1842-1910) dator. C.W. Eliot Harvardeko presidentek eraman zuen James unibertsitate hartara, lehenik anatomia eta fisiologia irakastera (medikuntzan lizentziatua zen) eta, gero, biologiara, psikologiara eta, azkenik, filosofiara pixkanaka aldentuz. Jamesekin batera Palmer eta Royce zeuden eta George Santayana, Ralph Barton Perry eta Edwin Bissell Holt gazteagoak. Horiek eraman zuten Harvardeko pragmatismoa punturik altuenera. Psikologian egindako lana handia izanik ere, *Pragmatismoa* izeneko liburuak (1907) eman zion ospea eta eragina Jamesi. Errealismo metafisikoa «esperientziaren printzipioarekin» lotuz, enpirismo erradikala defenditu zuen eta aldaketa sakona eragin zuen epistemologian, metafisikan, erlijioaren filosofian eta filosofia moralean. Kuklickek argi azaltzen du Jamesek Roycerekin izandako konfrontazio luzea «Absolutuaren gatazkan» eta egia da, orri gehiago erabili gabe, ezin izan duela Jamesen eragin filosofikoa zabalago hedatu.

Hamargarren kapituluak interes berezia du: Instrumentalismoa Chicagon, 1903tik 1934ra. Hemen dator Dewey heldua (tartekoa ere esaten zaiona). Hamar urte egin zituen Chicagon, 1894tik 1904ra eta «Chicagoko Eskola» sortu zuen Filosofia, Psikologia eta Pedagogiako katedradun izan zen bitartean, 1904an Columbia Unibertsitatera pasatu aurretik, Chicagoko Unibertsitateko presidentearekin liskar bat medio. Ezagutzaren teorian, logikan, etikan eta hezkuntzaren teorian bideratzen du instrumentalismoa. Esperientzia kognitiboaren mugatzea dago guztiaren azpian eta esperientziaren kontrolak eramaten gaitu esparru naturaletik esparru moralera. Eboluzioaz hitz egiterakoan badira oraindik zantzu neo-hegeldarrak eta Kuklickek esaten digu ez zituela ondo bereizten prozesua eta progresua. Deweyk asko eta asko argitaratu zuen bere bizitzako azken hogeita bost urteetan, bai filosofia moralaz, bai gizarte filosofiaz, bai filosofia politikoaz. 1929ko depresio handiaren ondoren, formalki ez bazen ere, praktikan demokraziaren ordezkudeatzaile adituen elitea indartu behar zela ziotenen aurka altxatu zen, kultura herritar demokratikoa zabaldu eta indartu behar zela sostengatuz, ezagutzaren bideak hedatuz bakarrik lor zitekeelako aukera demokratikoak egin zitzakeen herri artikulatu bat. Chicagoko Eskolan pentsalari handi bat utzi zuen Deweyk: George Herbert Mead (1863-1931). Ez du honek Kuklicken testuan dagokion tratua jasotzen. Gizarte psikologian eta filosofian egin zuen bere lanik handiena eta interesgarriena, beti aplikazioei begira gizartea ezkerretik aldatzeko asmoz, Deweyk erakutsitakoari jarraituz. Meaden *Mind, Self and Society*, bera

hil eta hiru urte beranduago Charles Morris ikasleak argitaratu zuena, obra psikologiko-filosofiko nagusia da hogeigarren mendearen lehen zatian, funtzionalismoaren zutabe eta interakzionismo sinbolikoaren oinarri teorikoa izan zelako. Liburu horren alboan Morrisek berak 1938an argitaratutako Meaden *The Philosophy of the Act* aipatu behar da, ikusi ahal izateko gizarte filosofian, filosofia moralean eta pragmatismoaren gizarte ikuspegian egin zituen ekarpenek zenbaterainoko eragin sakona izan zuten filosofigintzan eta herrigintzan. Kuklicken testuak ez du honen berririk ematen.

Liburuaren hirugarren zatiak Filosofia Profesionala aztertzen du, 1912tik 2000ra. Lau kapitulu ditu eta lauorrei bat orri guztira. Gutxiegi, AEBetan filosofia bigarren mundu gerraren ondotik hartu duen indar akademikoa go-goan izanda. Arrazoa du Kuklickek indar akademikokoaren batera presentzia publikoa galtzen joan dela, baina horrek ez du inor harritzen filosofiaren barruko etengabeko espezializazioa azken mugetaraino eraman nahi denean (sarritan arazorik txikienak, iruzkinaren iruzkinez, arazo nagusi bihurtu nahian, unibertitateetako filosofo profesionalek beren argitalpenen kopurua egunero gizendu behar omen dutelako —*publish or perish*—) eta intelektuala- ren eginkizunak filosofiatik kanpoko lekua hartu duelako (Chomsky, Fukuyama, Hayek, Friedman, Wilson, Pinker...).

Zati honen lehen kapituluak 1912tik 1956ra arteko garaia aurkezten du. Errealismo berriaren eta «lankidetzaren» garaia filosofigintzan. Jamesek, asper-asper eginda, jadanik esana zuen: bere garaiko filosofo gazteek mintegietan lortzen zutena ez zen batak bestea aspertzea baizik eta *Philosophical Review* aldizkarian argitaratzen zutena txosten penagarriak besterik ez ziren; prozesu lehortzaile eta sasijakintzaren hedatzaile baten emaitza. Erreakzioa berriro ere Harvarden eman zen, batez ere Ralph Barton Perry eta Edwin Bissell Holt buru zirela eta *Journal of Philosophy* aldizkaria beraien eskuetan zutela. Errealismo berri horrek bidea ireki zion errealismo kritikoiari, Santayanaren hasierako lanei esker, eta, Lovejoyren jarrera aldaketak gorabehera, Roy Wood Sellarsen (1883-1973) epistemologiako lan mardula medio, gero jarraipen kritikoz Wilfrid Sellars (1912-1989) aurrekoaren semeak zehatzago landuko zuena. Mugimendu hori indarra hartzen ari zen garaian, salbuespen bat da Clarence Irving Lewis (1883-1964) logikari eta epistemologoa. Wilfrid Sellarsi orri oso gutxi ematen dizkio Kuklickek, kontuan hartu gabe 1956an argitaratu zuen *Empiricism and the Philosophy of Mind* liburuaren garrantzi handia (emana denaren mitoa deuseztuz) eta Sellarsek merezimendu propioz epistemologian, hizkuntzaren filosofian, zientziaren filosofian eta gogoaren filosofian daukan leku aparta. C.I. Lewisek ez du tratu hoberik jasotzen Kuklicken liburuan.

Hamabigarren kapitulua oso labur idatzia dago. AEBetako filosofian Europaren eragina aztertu nahi du, 1928tik 1964ra bitartean. Azken aldiko Whiteheaden lana apenas azaltzen da (*Process and Reality* liburuaren edukia ez da aipatzen), APAren (American Philosophical Association) eta ACPAren

(American Catholic Philosophical Association) arteko liskarrei garrantzi gehiegi ematen zaie eta Harvarden aurkako idealista berriei buruz (Yale beti Harvarden kontra) hitz gutxi batzuk besterik ez dira esaten. Kapituluaren zatirik interesgarriena AEBetan Frankfurtetako eskolaren marxismoaren eragina nola hedatu zen argitzean dago, bereziki Horkheimerren (1895-1973) teoria kritikoaren eskutik, Adorno (1903-1969) eta Marcuse (1898-1979) laguntzaile efektiboak zituela (azken honek, Frommek bezala, psikoanaliari ere AEBetan bideak zabalduz). Enpirismo logikoaren hedatzeari buruz Kuklickek dioena azkar bukatzen da Carnapek Chicagon positibismoaren alde egindakoa aipatuz eta Reichenbachen, Feigl-en, Hempelen edo Nagelen ekarpenak seinlatu gabe. Gauza bera gertatzen da existentzialismoarekin eta horren bidez sartzen den fenomenologiarekin.

Interes gehiago du hurrengo kapituluak Harvarden eta Oxforden arteko lankidetzaren aurkezten baita bertan, 1946tik 1975erako tartean. Kuklicken usuez Isaiah Berlin (1909-1997), Oxforden filosofia analitikoan hasi eta berehala ideien historia egitera pasatu zena, izan zen bitartekari lana egin zuena. Nelson Goodman (1906-1998) eta Willard Van Orman Quine (1908-2000) labur-labur azaltzen dira, lehenari epistemologian, hizkuntzaren filosofian eta estetikan garrantzia emanez eta bigarrenari, berriz, logikan, epistemologian eta ontologian. Kuklickek azkarregi geratu du historia eta horregatik Davidson, Dennett, Dreben, Kripke, David Lewis, Nozick, Nussbaum, Shoemaker, Ziff, Schiffer, Searle, Unger, Hampshire, Urmson, Wollheim, Grice, Smart, Hare, McDowell eta Wright izen hutsez bakarrik agertzen dira kapitulu horren bukaeran, lehenagotik Tarski edo Ruth Barcan Marcusekin gertatu den bezala. Jakina, beste asko falta dira. Egia da ezin zaiola historialari eskatu ia presentea izaten segitzen duenaren historia egitea. Gauden garaian gaude la, ordea, merezi du AEBetako hogeigarren mendeko azken hogeita bost urteetako historia zehatzagoa egiteak, gogoan izanda esparru filosofikoaren nagusitasuna bertan egon dela eta gaur ere bertan dagoela.

Liburuaren azken kapituluak filosofia profesionalaren ardatzak aurkeztu nahi ditu, 1962tik 1999ra bitartean. Hogeitabat orri hartzen dira horretarako. Filosofiaren hazkundera izugarria da garai horretan: aldizkariak, unibertsitate sailak, doktore tesiak, ikerketarako laguntzak, irakaskuntza kargaren murriztea irakasleentzat, ikerketa zentro berriak, filosofoen mugikortasunaren sustapena... Dirudenez, hazkunderak goia jo du. Filosofia analitikoa erabat zatitua dago eta apenas duen presentzia publikorik, John Rawlsen (1921-2002) kasua lekuko, nahiz 1971an *A Theory of Justice* liburu gutziz garrantzitsua argitaratu eta 1993an *Political Liberalism* eman argitara. Beste aldetik, fenomenologia eta hermeneutika sartu dira filosofia analitikoa erasotuz, Yaleko Unibertsitatea buru dela. Pluralismoa areagotzeko, unibertsitate katolikoetako filosofia sailak indartu dira. Neomarxisten lana ere hor dago eta, zer esanik ez, filosofia feministarena. Hau guztia aldizkari garrantzitsuak ixten hasi direnean, ikasleak filosofia sail askotan urritzen hasi direnean,

filosofiaren errekonozimendu publikoa gutxitzen hasi denean... eta kanpo-tik filosofia egiten omen dutenen zerrenda hazten doanean (gogoratu Chomsky, Churchland biak, Fukuyama, neurriren batean Kuhn bera edo Rorty bera eta, okerrago, bioetikan, kudeaketaren etikan, neuropsikofilosofian, neurozientzia kognitiboan edo nanozientzian kokatuta beren buruak lotsagabe filosofotzat aurkezten dituztenak). Ia gauza gehienetan bezala, laster datorkigu gainera AEBetako olatu geldiezin hori.

Kuklicken liburua desorekatua da bere hiru zatietan. Hirugarrena da ahulena, bigarrena onena eta lehenbizikoa informazio gehien ematen duena. Metodoak, Iturriak eta Oharrak liburuaren bukaeran luze eman ondoren, indize analitiko on batekin amaitzen da liburua. Eskuliburu obligatua da bere arloan. Ematen du salmenta handitzeko asmoz atzeko azalean sartu dutela Russellen *History of Western Philosophy* liburuarekin halako parekatze bat. Ez daude, ordea, parean ez forman ez edukiak tratatzeko moduan.

Jesus M. Larrazabal
ILCLI